

Ipuinak, tabuekin hausteko

Juan Jose Ispizua



Informazio Zientzian Lizentziatua eta “Kazetaritza Modernoa” Doktoradutza ikastaroak gaindituta du.

Kazetari lanetan *Anaitasuna* eta *Argia* aldizkarietako partaide eta laguntzailea izan zen, 1980 urtetik aurrera. Honez gain, UEU, AEK eta Korrikako prentsa bulegoko arduradun eta partaide, hainbat ediziotan.

*Oiztik Begira Egin*eko eguneroko orri lokaletako kazetaria. Durangaldea eta Busturialdeako orrialdeetan.

Hilean Behin aldizkariaren sortzaile; disenatzailea eta kazetari lanetan jardun zuen Gernika eta Bermeon.

Berrietan Blai Bermeoko Udal boletinaren disenatzailea eta kazetaria izan zen, zenbait urtez.

Ondoren, Bermeoko Gazte Informazio Bulegoko arduradun lanari ekin zion.

Beste alde batetik, Euskal Herriko, Bilbo eta Gernikaldeko AEKko partaidea, irakasle eta didaktika arduraduna.

Itzulpen lanak egin izan ditu zenbait erakunde eta enpresetarako.

2004 urtean Txomin Agirre Saria lortu zuen, *Harizpeko neskaren afera* Urdaibaiko Erreserban giro-tutako eleberri beltzari esker.

Ibn el kayin, Harrareko poeta zoratua, Susa.

2005, *Harizpeko neskaren afera*, BBK-Euskaltzaindia.

Itzulpenak, Aladino (*Edorta Jimenezekin elkarlanean*).

Oren orena

Juan Jose Ispizua

Baztango bailaran ugazaba askoren egurra jasanda zegoen txakur zahar batek planto egin eta otu zitzaion bazela garaia berak nahi zuena egiteko. Are gehiago, txakur-ametsak alde batera utzi eta orek euren buruaren jabe izan eta agintea hartu behar zutela. Horretarako Baztango Oren Biltzarrera deituko zituen txakur guztiak.

Aurkitu txakur bakoitzari, baserrikoa dela, kalekoa dela, biltzarrerako abisua pasatu zion eta gainerako txakurrei ere jakinarazteko mandatua eman. Ilargi beterako bilduko guztiak ziren Zugarramurdin.

Heldu zen batzar gaua eta milaka txakur bilduta zeuden akelarreko zelaian, denak txakur zahar eta jakintsu haren hitzak entzuteko grinaz. Mintzatzen hasi zitzaien honela:

- *Neba-arreba maiteok, sasoia da gure libertateak berreskuratzeko eta askatasun bizitzan murgiltzeko. Gure arbasoen senera bueltatzeko...* –luze jardun zuen txakurren artean inoiz izan den diskurtsorik sendo, potolo, mamitsu eta mardulena izan zelarik honela amaitu zen hura– ...*hautsi ditzagun kateak, apurtu koilarrak, ahaztu ugazabak!!*

Larrun menditik Iparlako larretaraino entzun ziren askatasun ahausi eta algarak gau ilargitsu hartan. Txakur adina zaunka eta intziriz bete zen bailara. Alabaina. lehen momentuko beroak epeldutakoan Urdazubiko errementariaren ora mintzatu zen:

- *Oren alai honetako kideok. Hitzen beroak arima hanpatzen digu eta begiak lausotu jasan ditugun sufrimenduak gogoratzean* –isildu egin ziren denak horren hitz ederrak entzunda–. *Ezin dugu, baina, geu kateatzen gaituztelako katea guztiak hautsi. Oso lan handia egiten dute behiak hiltegitira eramateko orduan. Pentsa ezazue, bestela, nola jan genitzakeen idi-hezurak eta behiki erraiak.*

Txakurrek hezurak eta erraiak gustuko dutelako edo haien pentsamenduan zegoelako, eragina izan zuten errementarikoaren esanak. Eta kateak hautsi egin behar ez zirelako erabakia ondo errotuta joan zen bakoitza bere etxaldera hurrengo ilargi betean bilduko zirelako deiarekin. Bitartean iraultzarekin aurrera egiteko zer egin behar zen pentsatu beharra zegoen.

Heldu zen hurrengo ilargi betea eta berarekin Baztango txakur guztiak, errementarienak ezik. Gutxi batzuen faltak ez zuen saldoaren handitasuna murriztu eta gure txakur zaharrak berriro zabaldu zuen hilabete lehenagoko diskurtsoa. Orduan besteko algara, intziri eta kantu alai entzun zen Iparlatik Larruneraino. Honetan uhalgileen txakurren ordezkari zetorren batek hartu zuen hitza:

- *Neba-arreba maiteok osoki maite dugu libertatea. Alabaina, gaizkileek, askatasunean bizi badira, kalte handiak eragin ahal dizkigute. Kontuan izan otsoekin borrokan egitean zenbat larri zauritu eta hildako legokeen gure iduneko koilar sendo eta babesgarriengatik ez balitz.*

- *Aspalditik ez badago otsorik Baztanen!!* –moztu dio txakur zaharrak uhalgile-txakurren ordezkariari–.

- *Bai! Albako Harriko inguruan entzun dituzte haien uluak* –erantzun dio berehala ordezkariak–. *Eta haien erasoei aurre egiteko gure letaginak bezainbeste behar ditugu larruzko koilar sendoak.*

- *Bai! Zuzen dabil! Behar ditugu!* –oihukatu dute txakur guztiek, ustezko otsoen beldur–.

Txakur zaharrak, amore emanda, onartutzat jo zuen proposamena eta, eguna argitzen ari zenez, bakoitza bere etxea joateko beta zela gogoratu hurrengo biltzarrera arte.

Geroztik ilargi betea den guztietan entzuten dira txakurren ahausi eta intziriak Baztan inguruan. Belarri fina dutenek gero eta txakur gutxiagoren zaunkak entzuten direla adierazten dute. Bada esaten duenik ere txakur deslaidak baino ez direla biltzen ilargi beteko oren orenean.